

Lehen Hezkuntza 2. zikloa

SAIOAK: Aurretik 1 / Ekoetxea 4+1 / Ondoren 1

IKASGAIA	GAI EKOSOZIALAK	INGURUMEN-POLITIKAK
Natura, gizarte eta kultura ingurunearen ezagutza	<ul style="list-style-type: none"> ➤ Eko-Mendekotasuna ➤ Biosferaren funtzionamendua ➤ Zibilizazio-Krisia 	<ul style="list-style-type: none"> ➤ Ura ➤ Hondakinak ➤ Biodibertsitatea ➤ Ohitura jasangarriak ➤ Aldaketa klimatikoa



Ikas egoeraren markoa

TESTUINGURUA. Plaiaundiko Parke Ekologikoa funtsezko babeslekua da hegazti espezie askorentzat. Hainbat elikadura motatara egokitutako mokoek ekosistemaren aniztasuna islatzen dute. Biodibertsitate hau babesteko, funtsezkoa da ingurunea garbi mantentzea eta hondakinak behar bezala kudeatzea, hegaztiak elikagaiekin nahastu ez ditzaten eta ondorio larriak jasan ez ditzaten.



Abiapuntua

Hegaztiak morfologikoki oso desberdinak dira, baina ezaugarri desberdin horien artean, mokoetan zentratuko gara beraien elikadura eta bizi diren ekosistemen ezaugarriak ezagutzeko.

AZKEN EKOIZPENA EDO PRODUKTUA.

Makroornogabeek ekosisteman duten funtsezko zeregina ezagutu ondoren, intsektuen hotel bat eraikiko dute azken proiektu gisa. Babesleku hori ikastetxera eramango dute eta ingurumena zaintzeko eta klima-aldaketari aurre egiteko konpromisoaren sinbolo bihurtuko da.



Ekimen honen bidez, biodibertsitatea babesteko neurri zehatzak praktikan jarriko dituzte, natura-ingurunearen errespetua eta kudeaketa arduratsua sustatuz.

HELBURU KOMPETENTZIALAK

- Hegaztien mokoien formen eta funtzioen aniztasuna ezagutzea, haien ingurune naturalerako egokitzapena balioetsiz.
- Hegaztien mokoak formaren eta funtzioaren arabera behatu, alderatu eta sailkatzea, eta kontsumitzen dituzten elikagaiekin erlazionatzea.
- Hondakinek ekosistemetan duten eraginari buruz hausnartzea, eta ondo kudeatzeak animalien bizitza babesteko duen garrantzia ulertzea.
- Naturarekiko errespetu-arauei jarraituz eta jarrera arduratsua garatuz, ingurunea esploratzen aktiboki parte hartzea.
- Mundu naturalarekiko jakin-mina eta giza ekintzek ekosistemei nola eragiten dieten ikertzeko interesa sustatzea.


Curriculumaren zehaztapenak

NATURA, GIZARTE ETA KULTURA INGURUNEAREN EZAGUTZA

FUNTZ. KONP.	DES.	KONPETENTZIA ESPEZIFIKOAK	EBALUAZIO IRIZPIDEAK	OINARRIZKO JAKINTZAK
HKK KE STEM KD EK KPSII	1, 2, 3 12 4, 6 1, 2, 3, 4,5 3 5	1. Informazioa bilatzea eta hautatzea bitarteko eta baliabide digital eta analogikoen bidez, bai banaka bai taldean, haren fidagarritasuna eta egokitasuna ebaluatuz, teknologia digitalak modu seguruan eta iraunkorrean erabiltzeko ohiturak hartuz, informazio hori ezagutza bihurtzeko eta modu antolatuan eta sortzailean komunikatzeko.	1.3. Gailu eta baliabide digitalak modu seguru eta iraunkorrean erabiltzea, zereginaren premien eta helburuen eta hezkuntza-testuinguruaren arabera, eta eduki digital errazak sortzea. 	A. Kultura zientifikoa 2. Bizitza gure planetan. - 2.1 Naturaren erresumak ikuspegi orokor eta integratu batetik, ekosistemen ezaugarrien azterketa eta analisisa oinarri hartuta. Elementuen eta baliabideen arteko oreka. Euskal Herriko ekosistemak. - 2.2 Gizakiak ekosistemekin duen harremana (hurbiltasunetik globaltasunera) gizartearen beharrak asetzeko. Gure planetako baliabide naturalen erabilera egokiak eta txarrak eta horien ondorioak. Biodibertsitatearen zeregina biosferaren orekan. - 2.3 Animalien berezko ezaugarriak, ingurunera egokitzeko duten ahalmenarekin lotutako azpitaldeetan sailkatzeko eta bereizteko aukera ematen dutenak: energia lortzea, ingurunearekiko harremana eta espeziearen betiketzea. - 2.4 Landareen berezko ezaugarriak, ingurunera egokitzeko duten ahalmenaren arabera sailkatzeko aukera ematen dutenak: energia lortzea, ingurunearekiko harremana eta espeziearen betiketzea. - 2.5 Biodibertsitatea. Biodibertsitatearen zeregina biosferaren orekan. Biodibertsitatea mehatxatzen duten faktoreak (habitata suntsitzea, espezie inbaditzaileak, klima-aldaketa, kutsadura, baliabideak gehiegi ustiatzea...). - 2.7 Ongizate fisikoa, emozionala eta soziala gure ingurune hurbilenean: tresnak, autokontzientzia eta ohitura osasungarriak.
HKK KE STEM KD EK HK KPSII KAKK	1,3 1,2 1, 2, 4, 5, 6 1 1 1, 4 4 1, 2	5. Natura-, gizarte- eta kultura-ingurune elementu edo sistemen ezaugarriak identifikatzea eta aztertzea, eta horien antolamendua eta propietateak deskribatzea, eta haien arteko harremanak ezartzea, kultura- eta natura-ondarearen balioa ezagutzeko eta hura kontserbatzeko eta hobetzeko ekintzei ekiteko, erabilera arduratsu eta iraunkor baten bidez.	5.2. Natura-, gizarte- eta kultura-ingurune elementuen arteko konexio errazak identifikatzea, haien artean ezartzen diren harremanak ulertzen direla erakutsiz. 5.4. Natura- eta kultura-ondarea baloratzea eta babestea, hura ondasun komun gisa onartuz, ondare horretaz gozatzeko errespetuzko jokabideak hartuz eta berori kontserbatzeko eta hobetzeko ekintzak proposatuz. 	

NATURA, GIZARTE ETA KULTURA INGURUNEAREN EZAGUTZA

FUNTZ. KONP.	DES.	KONPETENTZIA ESPEZIFIKOAK	EBALUAZIO IRIZPIDEAK	OINARRIZKO JAKINTZAK
HKK KE STEM KD KPSII HK EK KAKK	1, 2, 3, 5 1, 2, 3 1, 2, 5, 6 2, 3, 5 4 1, 2, 3, 4 1, 2, 3 1	6. Gizakiak ingurunean egiten duen esku-hartzearen kausak eta ondorioak kritikoki aztertzea, maila soziala, ekonomikoa, kulturala, teknologikoa eta ekologikoa integratuz eta pertsonen eta planetaren errespetuarekin, zaintzarekin eta babesarekin kontsekuenteak diren ohitura iraunkorrak praktikan jarri, arazoei aurre egiteko, konponbideak bilatzeko eta konponbidean banaka eta elkarlanean jarduteko gaitasuna garatzeko.	<p>6.1. Pertsonen bizitzaren eta inguruneko elementu eta baliabideen gaineko haien ekintzen arteko erlazioa kritikoki aztertzea, giza ekintzak ingurunean eragiten dituen aldaketa positiboez eta negatiboez jabetuz eta bizitza bere forma desberdinetan errespetatuz.</p> <p>6.2. Planeta, pertsonak eta ingurunea zaintzeko, babesteko eta errespetatzeko ohitura iraunkor egokiak praktikan jartzea.</p> <p>6.3. Ingurune arazo ekosozialak antzematea, ondorio kaltegarrienak dituztenak saihesten lagun dezaketen ekintzak modu kooperatiboan proposatuz.</p>	<p>C. Gizarteak eta lurraldeak</p> <p>4. Kontzientzia ekosoziala.</p> <ul style="list-style-type: none"> - 4.1 Krisi ekosozial globala. Giza ekintza: klima-aldaketaren kausa eta ondorioei eta horiek inguruneko paisaietan duten inpaktuari buruzko sarrera. Arintze-neurriak. Naturaren kontserbazioa eta babesa. - 4.3 Giza ekintzen ondoriozko erantzukizun ekosoziala. Erantzukizun indibidualak eta kolektiboak. Animaliekiko tratu txarra eta horren prebentzioa. - 4.4 Bizi-ohitura jasangarriak. Kontsumo arduratsua, uraren eta energiaren erabilera, mugikortasun jasangarria eta hondakinen kudeaketa.
HKK KE STEM KD KPSII HK EK KAKK	1, 2, 3 1, 2 4 1, 4, 5 4 1, 3 2 1	7. Natura-, gizarte- eta kultura-ingurunearen jarraitutasunak eta aldaketak behatzea, ulertzea eta interpretatzea, kausalitate-, aldiberekotasun- eta ondorengotza-erlazioak aztertuta, elementuen eta gertaeren arteko harremanak azaltzeko eta baloratzeko, eta iraunkortasun-irizpideen arabera jokatzeko.	<p>7.1. Natura-, gizarte eta kultura-ingurune hurbileko gertaerak aldi baterako antolatzea, oinarrizko neurri eta segida-nozioak erabiliz, historiako pertsona garrantzitsuekiko, iraganeko bizimoduekiko eta horien bilakaeraren garrantziarekiko jakin-mina erakutsiz.</p>	



Ikuspegi ekosoziala

IKASKUNTZA EKOSOZIALA

2. Biosfera gurtzea. Biodibertsitatearen eta ekosistemen garrantzia baloratzea. Natura gizakiek kontrolatu eta ustiatzeko existitzen dela dioen ideiarekin ikuspegi kritikoa izatea. Antropozentrismotik ekentrismora igarotzea.

4. Lurreko biziaren funtzionamenduaren oinarriak ezagutzea: zikloak ixtea, eguzki-energia erabiltzea, aniztasuna areagotzea eta lankidetzaren maximoa.

6. Bizi dugun zibilizazio-krisiaren egoera onartzea.

EBALUAZIO IRIZPIDE EKOSOZIALAK

2.1. Bizitza osoari balioa ematea.

2.2. Beren ingurune naturalean bizi diren izaki bizidunen aniztasunaren edertasunari balioa ematea.

2.3. Biodibertsitatea babesteko ekintzak egitea.

2.4. Gizakiak natura kontrolatu dezakeela edo kontrolatu behar duela dioen ideiarekin aurrean ikuspegi kritikoa adieraztea.

2.5. Bizitza osoaren babesari balio handia ematea, kulturalki arbuioa eragiten diguna barne (ornogabeak, adibidez).

4.1. Ekosistema desberdinagoek kontrako egoerak jasateko gaitasun handiagoa dutela erakusten duten adibideak jartzea, hain desberdinak ez direnek baino.

4.2. Espezie jakin batzuen arteko lehiatik harago, bizitza osoa oso antolatua, koordinatua eta kooperatiboa dela erakustea.

6.1. Krisi ekologiko eta sozialerako irtenbideak abian jartzearen garrantzia adieraztea.


6.2. Klima-aldaketa, energia-krisia eta krisi materiala eta biodibertsitatearen galera gizarte-inpaktuak dituzten arazo gisa identifikatzea.

OINARRIZKO JAKINTZA EKOSOZIALAK

- * Naturarekiko lotura espiritual.
- * Natura zaintzearen garrantzia.
- * Edertasuna izaki bizidunen aniztasunean eta oreka ekosistemikoetan.
- * Naturarekiko lotura emozionala.

- * Lurreko biziari eusteko oinarriko funtzioak: fotosintesia eta materiaren zikloak ixtea, bakterioen, onddoen eta ornogabeen ekintzaren bidez.
- * Biodibertsitatea eta interkonexioak maximizatzea, bizitzaren segurtasunerako oinarriko mekanismo gisa.
- * Espezieen arteko lankidetzaren, Lurreko baliabide mugatuak ahalik eta gehien aprobetxatzeko eta bizitza osoa zabaltzeko.

- * Klima-aldaketa, energia-krisia eta krisi materiala, eta biodibertsitatearen galera gizarte-inpaktuak dituzten arazo gisa.



IKASKUNTZA EKOSOZIALA

7. Klima-aldaketa zer den, horren arrazoiak, ondorioak eta konponbideak ezagutzea.

11. Arazoen oinarrian dauden krisi ekologiko eta sozialerako irtenbideak balioestea.

EBALUAZIO IRIZPIDE EKOSOZIALAK

7.1. Klima-aldaketa zertan datzan azaltzea.

7.2. Klima-aldaketaren ondorio batzuk zerrendatzea.

7.3. Irtenbide indibidualak, komunitarioak eta sozialak diseinatzea klima-aldaketarekin lotuta sortzen diren arazoen aurrean.

11.1. Naturaren funtzionamenduan modu harmonikoan txertatzen diren bizimoduak hartzea eta erakustea.

OINARRIZKO JAKINTZA EKOSOZIALAK

- * Klima-aldaketaren ondorioak: muturreko fenomeno meteorologikoak (lehortek, uholdeak, bero-boladak, etab.), suteak.
- * Klima-aldaketaren aurkako neurriak maila indibidualean: motordun mugikortasuna murriztea, dieta begetarianoak eta gertukoak, kontsumoaren urritasuna, etab. Neurri eraginkorragoak eta irismenaren balorazioa.
- * Identitatea eraikitzea, ez bakarrik gauza indibidual gisa, baita kolektibo gisa eta identitate ekozentriko gisa ere (ekosistema baten zati gisa).

Euskal Autonomia Erkidegoko curriculumaren kompetentzia esparruarekin lotura zuzena izateaz gain, dimentsio ekosoziala indartu nahi izan dugu gure ikas esperientzietan. Horretarako, FUHEMek (Fundación Benéfico-Social Hogar del Empleado) proposatutako ikaskuntza ekosozialak ere sartu dira modu osagarrian. Begirada ekosozialaren integrazioan erreferentea da FUHEM.





Metodologia



ESTRATEGIA

EREDU PEDAGOGIKOA:

Arazoetan
oinarritutako
ikaskuntza

Gogoetan
oinarritutako
ikaskuntza



ESTRATEGIA EKOSOZIALAK

Ezagutzaren
eraikuntza
kolektiboa

Ikaskuntza
aktiboa



TEKNIKAK

OHIKOAK:

Tailerrak
Entzute

kolektiboa

Azalpenak talde
handietan

EZOHIKOAK:

Museoa

Besteak
(Babestutako
naturgunea)

